EUSKO LEGEBILTZARREAN ZEINU-HIZKUNTZAREN INTERPRETEEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da zeinu-hizkuntzan ahozko eta idatzizko informazioaren interpretazio-zerbitzua ematea, ganbara autonomikoa hizkuntza hori erabiltzen duten pertsona gorrekin edo entzumen-urritasuna dutenekin komunikatzen dela ziurtatzeko, baldin eta pertsona horiek Eusko Legebiltzarraren osoko bilkuretara eta ekitaldi publikoetara joaten badira edo horien jarraipena egiten badute ikus-entzunezko edozein komunikabideren bitartez.

2.- KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuak bi urteko iraupena izango du, eta beste urte batez luzatu ahal izango da, gehienez bi luzapen egin arte.

3.- ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

Interpretazio-taldeak honako zerbitzu hauek eman beharko ditu Eusko Legebiltzarraren egoitzaren eraikinean edo, unean-unean, behar den lekuetan:

a) Ohiko osoko bilkuretan

Modu erregularrean, osoko bilkuretan Gobernu autonomikoari egiten zaizkion kontrol-galderak zeinu-hizkuntzan interpretatzea.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE INTÉRPRETES DE LENGUA DE SIGNOS EN EL PARLAMENTO VASCO

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato consiste en la prestación del servicio de interpretación de la información oral y escrita en lengua de signos, con el fin de asegurar la comunicación de la Cámara autonómica con las personas sordas o con discapacidad auditiva que sean usuarias de esta lengua y que asistan a las reuniones plenarias y actos públicos del Parlamento Vasco o que las sigan a través de cualquier medio de comunicación audiovisual.

2.- DURACIÓN DEL CONTRATO

El contrato tendrá una duración de dos años, prorrogables por otro año, hasta un máximo de dos prórrogas.

3.- DESCRIPCIÓN DEL SERVICIO

El equipo de interpretación deberá prestar los siguientes servicios en el edificio sede del Parlamento Vasco o, puntualmente, allí donde se requiera:

a) En las sesiones plenarias ordinarias

De manera regular, la interpretación en la lengua de signos de las preguntas de control que se formulan al Ejecutivo autonómico durante las sesiones plenarias.

Legegintzaldi bakoitzean 200 osoko bilkura inguru egiten dira, kontuan hartuta ohiko osoko bilkurak (otsailetik ekainera eta irailetik abendura) eta ezohikoak; oro har, urtean 50 saio inguru.

Cada legislatura se realizan aproximadamente 200 sesiones plenarias, entre ordinarias (de febrero a junio y de septiembre a diciembre) y extraordinarias, lo que supone una cifra cercana a 50 sesiones anuales.

b) Osoko bilkuretan, bertan egotea beharrezkoa denean

Garrantzi, hedapen eta/edo premia berezia dutelako. Iraupena zehaztugabea izango da saio bakoitzaren arabera.

Esate baterako, Jaurlaritzako lehendakariaren inbestidurako osoko bilkura bat, eta karguaz jabetzeko egintza, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 167. artikuluaren arabera, Gernikako Batzar Nagusietan, edo edo irailean egin ohi den ikasturte-hasierako politika orokorrari buruzko eztabaida.

b) En las sesiones plenarias donde se requiera su presencia

Dada su especial relevancia, difusión y/o necesidad. La duración será indeterminada en función de cada sesión.

Por ejemplo, una sesión plenaria de investidura del lehendakari del Gobierno, y el acto de toma de posesión del cargo, conforme al art. 167 del Reglamento del Parlamento Vasco, en las Juntas Generales de Gernika, o el debate de política general de inicio de curso de todos los meses de septiembre.

c) Erakunde- edo protokolo-ekitaldiak

Halaber, zeinu-hizkuntzako interpretazio-zerbitzua emango da Legebiltzarrak, aldez aurretik hala eskatuta, antolatzen dituen bilera eta ekitaldi publiko garrantzitsuetan. (5-30 ordu urtean, 2-5 ekitaldi urtean).

c) Actos institucionales o protocolarios

También se dará servicio de interpretación en la lengua de signos en aquellas reuniones y actos públicos de carácter relevante que organice el Parlamento, previo requerimiento de este (entre 5 y 30 horas anuales, entre 2 y 5 actos anuales).

d) Aparteko zerbitzuak eskatzea

Legebiltzarrak aparteko zerbitzu bat eskatu ahal izango dio enpresa esleipendunari, aipatutakoez gain, behar besteko aurrerapenarekin eskatu beharko dena (0-30 ordu urtean, 0-5 aparteko zerbitzu urtean).

Ordubete baino gehiagoko saioak aurreikusten direnean (kontroleko ohiko osoko bilkurak barne, beraz)

d) Requerimientos de servicios extraordinarios

El Parlamento podrá requerir a la empresa adjudicataria un servicio extraordinario, al margen de los mencionados, que deberá solicitar con la suficiente antelación (entre 0 y 30 horas anuales, entre 0 y 5 servicios extraordinarios anuales).

En sesiones previstas por más de una hora (incluidas, por tanto, la sesión de control ordinaria de los plenos) será

beharrezkoa izango da zeinu-hizkuntzako bi interprete egotea atsedenerako txandak ezartzeko eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko.

e) Oinarrizko lizitazio-aurrekontua

Hau izango da kontratu honen OLA.

2 urte x 50 saio/urte x 6 ordu/saio x 2 pertsona/saio x 35 euro/ordu pertsona =
42.000 euro (BEZik gabe)

2 urte x 20 ordu berezi/urte x 2 pertsona/hora x 42 euro/ordu=

3.360 euro (BEZik gabe)

Guztira: (42.000+ 3.360)+ %21 BEZ=
54.885,60 euro

Kontratistak kontratuko prestazioak betetzeko egin behar dituen gastu guztiak sartzen dira esleipen-prezioan (finantza-gastuak, mantentze-lanak, aseguruak, garraioak, tasak eta indarrean dauden zerga guztiak).

4.- ZERBITZUA EMATEA

Kontratistak bere gain hartzen ditu enplegua babesteari, lan-baldintzei eta lan-arriskuen prebentzioari eta ingurumena babesteari buruz indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betebeharrak.

Kontratazioaren xede den zerbitzua Ganberako osoko bilkurak egiteko aurreikusitako ordutegian emango da, normalean ostegunero, eta 15 egunean behin ostiraletan, kontroleko osoko bilkuretan.

necesaria la presencia de dos intérpretes de lengua de signos para poder establecer turnos de descanso y con el fin de garantizar la calidad del servicio.

e) Presupuesto Básico de Licitación

El PBL del presente contrato será el siguiente:

2 años x 50 sesiones/año x 6 horas/sesión x 2 personas/sesión x 35 euros/hora persona =
42.000 euros (sin IVA)

2 años x 20 horas especiales/año x 2 personas/hora x 42 euros/hora persona(=
3.360 euros (sin IVA)

Total: (42.000+ 3.360)+ 21% IVA=
54.885,60 euros

En el precio de adjudicación está incluida la totalidad de los gastos que debe realizar el o la contratista para el cumplimiento de las prestaciones contratadas (gastos financieros, mantenimiento, seguros, transportes, tasas y toda clase de tributos en vigor).

4.- PRESTACIÓN DEL SERVICIO

El o la contratista asume las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de protección del empleo, condiciones de trabajo y prevención de riesgos laborales, así como de protección del medio ambiente.

El servicio objeto de contratación se prestará en el horario previsto para la celebración de los plenos de la Cámara, con carácter habitual todos los jueves, y cada 15 días, los viernes en los plenos de control.

Kontratuaren enpresa edo erakunde esleipendunak Eusko Legebiltzarraren egoitzan horretarako gaitutako aretoetatik eman beharko du zerbitzua, eta Legebiltzarrari 48 orduko gehieneko epean eta, larrialdi-kasuetan, 24 orduko epean erantzun beharko dio, eta eskatzen zaion guztietan zerbitzua betetzeko konpromisoa hartuko du, interpretearen edo interpreteen presentzia fisikoaren bidez.

5.- ATXIKITAKO LANGILEEN PROFILA

Zerbitzua, euskaraz dakiten eta euskarazko c1 titulua duten bi pertsonak emango dute.

Zerbitzuaz arduratzen diren pertsonek gutxienez 200 orduko esperientzia egiaztatu beharko dute interpretazioan, 4 ordutik gorako saio jarraituetan. Horrez gain, zeinu-mintzairaren interpretazioko goi-mailako teknikari gisa edo baliokide gisa informazio akademiko egokia izan beharko dute.

6.- BALDINTZA EKONOMIKOAK

Zerbitzuaren gehieneko prezioa 35 euro/ordu/interpretea (BEZik gabe) izango da.

Prezio unitario horrek % 20ko igoera izango du zerbitzua asteburuetan, jaiegunetan eta gauekotasunez eman behar izanez gero, hau da, 20:00etatik aurrera.

Oharrak

a- Lehen ordua osorik fakturatuko da, nahiz eta zerbitzua laburragoa izan; ordubetetik aurrera, frakzioaren arabera fakturatuko da.

b- Tarifa hauetan sartuta daude interpretearen irudi-eskubideak, edozein

La empresa o entidad adjudicataria del contrato deberá prestar servicio desde las salas habilitadas al efecto en la sede del Parlamento Vasco y deberá dar respuesta al Parlamento en un plazo máximo de 48 horas y, en casos de urgencia, de 24 horas, asumiendo el compromiso de cubrir el servicio siempre que sea requerido, a través de presencia física del o de la intérprete o intérpretes.

5.- PERFIL DEL PERSONAL ADSCRITO

La prestación del servicio se llevará a cabo por dos personas con conocimiento de euskera con titulación de c1 en euskera.

Las personas encargadas del servicio deberán acreditar una experiencia mínima de al menos 200 horas en interpretación realizadas en sesiones continuas de más de 4 horas, así como poseer la información académica adecuada como técnica o técnico superior de interpretación de lengua de signos o equivalente.

6.- CONDICIONES ECONÓMICAS

El precio del servicio será como máximo de 35 €/hora/ intérprete (IVA excluido).

Este precio unitario tendrá un incremento del 20 % en caso de que el servicio sea llevado a cabo en períodos de fines de semana, festivos y nocturnidad, esto es, a partir de las 20:00 horas.

Observaciones

a- Se facturará la primera hora entera, aunque el servicio tenga una duración inferior; después, la facturación se hará según fracciones.

b.- Están incluidos en estas tarifas los derechos de imagen del o de la intérprete,

ikus-entzunezko hedabideren bidez (telebista, weba, sare sozialak eta abar) zabaltzeari dagokionez, baita zerbitzua emateko behar diren gastu guztiak ere.

c.- Lanak, hileko fakturak aurkeztuta kobratuko dira. Faktura horiek, nolanahi ere, Kudeaketa Parlamentarioko zuzendariaren adostasuna beharko dute.

7.- ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEA

Eskaintzen edukiari dagokionez, balorazio-irizpideak honako hauek izango dira:

• % 75. Aurrekontu ekonomikoa. Balorazio ekonomikoa, honako formula honen arabera:

Pi = Pm (Bm / Bi), non:

Pi: baloratzen den eskaintzaren puntuazioa
GP: gehieneko puntuazioa (60 puntu)
Bm: aurkeztutako eskaintzarik onena
Bi: baloratzen den eskaintza

• % 25. Proiektu teknikoa, modu subjektiboan ezarritako balorazio-irizpidea

Baloratzeko, parte hartuko duten enpresek memoria tekniko bat aurkeztu beharko dute, nahitaez honako elementu hauek jasoko dituena:

- Osoko bilkuretan zeinu-hizkuntza interpretatzeko zerbitzua garatzeko behar den kokapena hobetzeko proposamena.

- Lana eta interpreteari zerbitzua emateko emango zaizkion elementu teknologikoak antolatzea.

para la difusión a través de cualquier medio audiovisual (televisión, web, redes sociales, etc.), así como todos los gastos necesarios para la prestación del servicio.

c.- Los trabajos se cobrarán mediante la presentación de facturas mensuales, que requerirán, en todo caso, la conformidad del director de Gestión Parlamentaria.

7.- CRITERIO DE VALORACIÓN DE OFERTAS

En relación con el contenido de las ofertas, los criterios de valoración serán los siguientes:

• 75 % Presupuesto económico. Valoración económica, que se hará con la siguiente fórmula:

Pi = Pm (Bm / Bi), donde:

Pi: puntuación de la oferta que se valora

Pm: puntuación máxima (75 puntos)
Bm: mejor oferta presentada
Bi: oferta que se valora

• 25% Proyecto técnico, criterio de valoración establecido de manera subjetiva

Para su valoración, las empresas participantes deberán presentar una memoria técnica que incluya necesariamente los siguientes elementos:

- Propuesta de mejora de la localización desde donde desarrollar el servicio de interpretación de lengua de signos durante las sesiones plenarias.

- Organización del trabajo y de los elementos tecnológicos de los que se dotará al o a la intérprete para llevar a cabo el servicio.

- Zerbitzua garatuko duten pertsonen eta arduradunaren/koordinatzailearen curriculumak.

- Zerbitzuaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko mekanismoak.

- Curriculum de las personas que desarrollarán el servicio y de la responsable/coordinadora

- Mecanismos de seguimiento y evaluación del servicio.